



prest_gara

Ikasten duen hezkuntza-komunitatea

PRESTAKUNTZA PLANA
HEZKUNTZA SAILBURUORDETZA

AURKIBIDEA

HITZAURREA

1. Sarrera	7
2. Diseinua	9
2.1. Prestakuntza planaren oinarriak	9
2.2. Prestakuntza planaren lehentasunezko ildoak, ezaugarriak eta modalitateak	13
2.2.1.- <i>Lehentasunezko ildoak</i>	13
2.2.2.- <i>Prestakuntzaren ezaugarriak</i>	13
2.2.3.- <i>Prestakuntza modalitateak</i>	15
2.2.4.- <i>Prestakuntza eta berrikuntza eragileak</i>	16
3. Ikastetxeetako prestakuntza-berrikuntza plana ezartzea	21
3.1. Plana ezartzeko estrategiak	21
1. <i>estrategia</i>	21
2. <i>estrategia</i>	26
3. <i>estrategia</i>	27
3.2. Laguntza-zerbitzuen parte-hartzea ikastetxeetako eskola-komunitateen prestakuntza-berrikuntza jardunean	27
3.2.1.- <i>Berritzeguneen egitekoa zentroen prestakuntza-planetan</i>	28
3.2.2.- <i>Ingurugelen egitekoa ikastetxeetako ingurumen prestakuntza planetan</i>	29
4. Prestakuntzaren prozesua eta emaitza baloratzea	31
5. Ondorioak	33

HITZAURREA

Irakasleen prestakuntzak ibilbide luzea bezain emankorra izan du Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman. Izan ere, sarrerako atalean diogunez, irakasleen prestakuntza-eguneratzea ezinbesteko osagaia da hezkuntza-sistemak hain funtsezkoak dituen etengabeko berrikuntza eta hobekuntzarako. Eta, bestela ezin, irakasle-jendearen prestakuntza planak etengabeko eguneratzea exijitzen du.

Ibilbide horretan, X. Legegintzaldi honen hasiera-hasieratik hartu dugu ardatz eta berrikusten ari gara Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen prestakuntza plana. Beraz, urtebete osoa plana berrikusten eman ondoren, argia ikusten du, azkenik. Edonola ere, Prest_Gara argitalpen honek orain arte egindakoaren jarraipena eta datorrenaren abiapuntua izan nahi du.

Jakina da mende berriaren hasieratik hezkuntzako eragile ugari eskatu duela irakasleei bideratutako prestakuntza plana garai berrietara egokitzea. Eskola-mundutik ere kezu bat baino gehiago jaso dugu. Garai bateko GARATU programa, esaterako, 90 hamarkadako prestakuntza-premiei erantzuteko diseinatu zen, baina ez da bete-betean egokitzen gure hezkuntza-komunitatearen egungo beharrezanetara. Bestalde, Administrazioak propio eraikita dituen Laguntza Zerbitzuek etengabeko prestakuntza-eguneratzea eta egindakoaren jarraipena eskaintzen die ikastetxeetako hezkuntza-komunitateei, testuinguru zehatzetan sortutako premietatik abiatuta. Horiei gaineratu behar zaizkie, batetik, Europako Batzordeak 2020 urterako hezkuntzari eta irakasleen prestakuntzari buruz emandako gomendioak eta, bestetik, Heziberri 2020 Planaren ildo estrategikoak, hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoaren garapenerako direnak; izan ere, azken horien artean, azpimarragarria da, irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzarako proposamena.

Hemen, hogeita hamar urte baino gehiagoko ibilbidean pilatu den esperientzia aztertu eta baloratu da, horiei buruzko gogoeta egin da, adituen ekarpen teorikoak eta hartzaileen balorazioak kontuan hartu dira eta prozesuan parte hartzen duten eragileen gogoetak eta ekarpenak txertatu dira oinarritzko dokumentura. Ondoren, irailaz geroztik gaur arte, planaren zirriborroa aurkeztu zaie hezkuntzako eragile gehienei. Aurkeztu bakarrik ez, azaldu, eta zalantzak ere argitu zaizkie eta, eragileok egin dituzten ekarpenak eta hobekuntza proposamenak txertatu dira planera. Horregatik, Prest_Gara planaren aurkezpena egiten dugun honetan, eragileok hezkuntza-sistemaren hobekuntza bermatzeko egin dituzten ahaleginak eta ekarpenak eskertuz aurkezten zaizue plana.

Argitalpen honetan jasotako ataletan Prest_Gara Prestakuntza planaren osatze ibilbidean emandako urratsak laburbiltzen dira.

Sarrerako atalean planaren xedea eta norbanakoaren eskubidearen bermea adierazten dira. Diseinuaren atalean, prestakuntza planaren oinarriak, ildo estrategikoak eta etengabeko prestakuntza planaren ezaugarriak eta modalitateak azaltzen dira. Prest_Gara planaren ezarpenari dagokion atala, berriz, Hezkuntza Berriztatze Lehenetako ildoan arabera antolatu da. Badago bertan, gainera, Laguntza Zerbitzuekin luze eta zabal adostu den eskola-komunitateko prestakuntza-berrikuntza jardunaren azalpena. Laugarren atalean, Prest_Gara planaren prozesua eta emaitzen balorazioa egiteko lehen irizpideak ezartzen dira. Azkenik, bukaerako atalean, adostasun-konklusio bateratuak bildu dira.

Prestakuntza plan honen oinarrian dagoen asmoa ikastetxeak irakaskuntza guneraz gainera, etengabeko hobekuntza bilatzeko ikasten duen zentruak izatea da. Gakoa ez da soilik irakasleak ikastea, baizik eta ikastetxeak hezkuntza-komunitatea osatzen duen erakunde gisa era dialogikoan ikastea baino. Informazioa eta prestakuntza, bide horretan, aurrebaldintza bat da, egiten diren praktikei buruzko galderak egiteko, galdera horiei erantzun zorrotzak eta adostuak eman ahal izateko eta, azkenik, hezkuntza-komunitatea etengabeko hobekuntza bidean jartzeko. Horregatik, zentzuzkoa dirudi zein irakasleen zein hezkuntza-komunitatearen prestakuntzara bideratutako programa, deialdi eta eginkizun guztiak txosten bakarrean biltzea, bateratasuna eta koherentzia emateko eta elkarren osagarri gisa aurkezteko.

BEGOÑA GARAMENDI IBARRA
Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 2an

1. Sarrera

Hezkuntza-sistemaren baten arrakastaren atzean faktore nagusi hau egon ohi da beti: irakasleek prestakuntza, trebetasun, motibazio, inplikazio eta bokazio nahikoa izatea, hain zuzen. Irakasleen prestakuntza estu-estu lotuta dago hezkuntzaren xedeekin eta Oinarriko Hezkuntzako ikasleen irteera-profilekin. Horixe da, hain juxtu, bai hasierako prestakuntzaren bai etengabeko prestakuntzaren gakoa, eta horregatik da ezinbesteko horren aurrean hezkuntza-komunitate oso-osoak arduraz eta konpromisoz jokatzeko.

Ildo horretan, nahitaezkoa da prestakuntza-proposamen guztien artean koherentzia izatea irizpide nagusia: hasierako prestakuntzaren eta etengabeko prestakuntzaren artean; prestakuntza-eragile eta -entitateen artean; teoriaren eta praxiaren artean; aurrekontuetan horretarako bideratzen den diruaren eta horrek hobekuntzetan duen eraginaren artean...

Hona zer den prestakuntza: norik bere burua ezagutzaren eraikuntzan trebatzeko prozesua, hezkuntza-jardueretan eta hezkuntza-prozesuetan partaide direnen garapen profesionalean oinarritua. Ikasle guztiek dute kalitatezko hezkuntza bat izateko eskubidea, bai eta prestakuntza-maila handia izan arren etengabe ikasten jarraitzen duten profesionalen esku egotekoa ere, hezkuntza-sistemak etengabe hobera egin dezan.

Hezkuntza ardura nagusi duten esparruetan (eskolan, unibertsitatean, babes-zerbitzuetan) prestakuntzaren inguruan garatutako planteamendu orokorrak ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Arreta hezkuntzarekin lotutako jardueretan jarri behar du, eta irakaskuntza hartu behar du aztergai eta gogoetagai.
- Konpetentzietan eta diziplinarteko planteamendu orokorretan oinarritutako ikuspegia sustatu behar du.
- Eguneratze zientifikoarekin, didaktikarekin eta hezkuntza-antolaearekin lotutako alderdi guztiak orekatu behar ditu.
- Gizarte-trebetasunei eta alderdi emozionalei behar besteko arreta eskaini behar die, bai eta, oro har, irakaskuntzan tartean izan ohi diren gainerako alderdiei ere.
- Profesional guztien arteko lankidetzaren prozesuak (maila bereko pertsonen prestakuntza, sareen sorrera) erraztu behar ditu.
- Prestakuntzarako plangintzak egitean, ardatza ikastetxea bera dela ohartu eta bultzatu behar du.
- Gizarte-ardura handiak dituzten profesionalak prestatu behar ditu, kritikoak bai, baina aldaketei preaktibotasunez eta sormenez aurre egingo dietenak.

Izan ere, etengabeko prestakuntza irakasle ororen eskubidea eta betebeharra da, ondorioz, Hezkuntza-administrazioaren betebeharra bihurtzen da eta ikasleari kalitatezko heziketa eskaini nahi dion eskola-komunitate eta irakasle ororen erantzukizuna.

Hala, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, hasi-hasieratik, hezkuntzako profesionalen etengabeko prestakuntza eta berrikuntza sustatu du, eskubide hori

bermatzeko arau-esparrua zehaztu du¹, berori ezartzeko zerbitzuak eta deialdiak antolatu ditu eta dena bideratzeko prozedurak eta tresnak diseinatu ditu, EAEko ikasleei eskaintzen diegun hezkuntza etengabe hobetzeko grinarekin.

Hori dela-eta, hogeita hamar urte baino gehiagoko ibilbidea egin, pilatu ditugun esperientziak aztertu, baloratu eta horiei buruzko hausnarketa egin, beste hezkuntza-sistema batzuek egindako esperientziak, adituen ekarpen teorikoak eta Europako Batzordeak^{2,34} argitaratu berri dituen dokumentuak landu ondoren, Heziberri 2020 planak euskal hezkuntza-eredu pedagogikoa ezartzeko eta hobetzeko proposatu duen ildo estrategikoetarikoa da irakasleriaren eta hezkuntza komunitatearen hasierako eta etengabeko hobekuntza.

¹ 185/2010 Dekretuak, uztailaren 6 koak, irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen du. Akordio horren 76.-77. artikulua irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzkoak dira. Bertan adierazten da “irakasle guztien eskubidea eta betebeharra da, batetik, eta Hezkuntza Administrazioen eta Ikastetxeen ardura, bestetik” irakasleen etengabeko trebakuntza, LOEren (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko, 2/2006 Lege Organikoaren) 102. artikuluan jasota dagoen bezala.

² Comisión Europea, ESTRATEGIA 2020.

<http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/COMPLET%20EN%20BARROSO%20%20%20007%20-%20Europe%202020%20-%20EN%20version.pdf>

Comisión Europea, FORMACIÓN DEL PROFESORADO. http://ec.europa.eu/education/school-education/teacher_en.htm

European Comisión (2012). **Supporting the Teaching Professions for Better Learning Outcomes.**

³ Comisión Europea, FORMACIÓN DEL PROFESORADO. http://ec.europa.eu/education/school-education/teacher_en.htm

⁴ European Comisión (2012). **Supporting the Teaching Professions for Better Learning Outcomes.**

2. Diseinua

Atal honetan Prest_gara prestakuntza planaren diseinua aurkezten da. Lehenik, bultzatu nahi den paradigma-aldaketaren zergatia azaltzen duten oinarriei egiten zaie erreferentzia, ondoren, lehentasunezko ildoak, prestakuntza planaren ezaugarriak, modalitateak eta eragileak gehitu zaizkio.

2.1. Prestakuntza planaren oinarriak

Honako hauek dira bultzatu nahi den paradigma-aldaketak oinarritzat hartzen dituen zimentarriak: prestakuntza premien eta eskaeren analisia; ikasleek derrigorrezko eskolaldia bukatzean aurreikusitako⁵ oinarrizko kompetentziak lor ditzaten, irakasleek beharrezkoak dituzten kompetentzien profila eta hezkuntza-komunitatearen atxikimendua; Europar Batasunak hezkuntzari eta prestakuntzari buruz egindako gomendioak, eta, azkenik, adituek egin dituzten gomendioen errebisioa.

Prestakuntza premia eta eskaeren analisia:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikasgelako beharren berrikuspena egingo du, hezkuntza-komunitatean parte hartzen duten eragileekin dituen harreman sistematikoen bidez eta Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen bidez (ISEI-IVEI). Erakunde horrek, hezkuntza-sistema ebaluatzeko zereginean, ebaluazio-proiektuak egiten ditu, kalitate-adierazleak osatzen ditu eta esperimentazio-prozesuak ebaluatzen ditu. Gainera, Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuarekin batera lan egiten du ebaluazio-prozesuetan, eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin, berriz, irakasleen prestakuntzan. Horrez gain, ikerketaren alorrean, ISEI-IVEI erakundeak ikerketa-ildoak sustatzen ditu⁶. Gizarteak hezkuntza-sistemari zer eskatzen dion aztertzeke eta ikasleek zer hezkuntza-beharrak dituzten aztertzeke baita esku-hartzeko proposamen berritzaile edo orientatzaileak proposatzeko ere.

Gizartearen eskaeren eta mende honek hezkuntzari planteatzen dizkion erronken analisia oinarri hartuta, 2013ko ekainean, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak ikuspegi etiko eta inklusibo batetik bultzatu beharrekoak diren lan-ildo⁷ eta balio berriak osatu eta adostu zituen Berritzeguneekin batera. Aipatu dokumentuan guztion –ikasleak, familiak, testuinguruak, administrazioak eta arduradun politikoak– erantzukizuna den erronka handi bat aipatzen du: ikasle-aniztasunari erantzun inklusiboa ematea, denek garatu ahal izan ditzaten oinarrizko kompetentziak eta denek bete ahal izan ditzaten beren bizi-proiektuak.

Dokumentu berak jasotzen duenez, hezkuntza ez da hezkuntza-sistemaren monopolioa, eta eskolak hezkuntza osoa eskaini nahi badie ikasleei, testuinguru

⁵ “Heziberri 2020: “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa”. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Comisión Europea: <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CELEX:32006H0962:ES:NOT>

⁶ ISEI-IVEI. Argitalpenak. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

⁷ Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza (2013). 2013-2014 aldirako Berritzeguneen lan-ildoak eta funtzioak.

formaletan, ez-formaletan eta informaletan ikasten dutena ere aintzat hartu behar da. Hots, komeni da hezkuntza-komunitateak bere osotasunean eskaintzen dituen aukera guzti-guztiak baliatzea, oinarrizko kompetentzien ahalik eta garapenik handiena lortzeko.

Aldi berean, EAEko irakasleen etengabeko prestakuntzaren analisisia egin dugu. Prestakuntza-eskaintza, irakasleen parte-hartzea eta prestakuntzaren eraginkortasuna aztertu dira. Analisi horretatik bi ondorio nagusi atera dira. Bata, EAEko eskola-komunitate eta irakasle multzo handi batek hartzen duela parte urtero eskaintzen diren prestakuntza ekintza ugaritan. Bestea, eraginkortasunari begira, oraindik, prestakuntza-eskaintza hobetzeko aukerak badaudela, batez ere, ikastetxeetan bertan egiteko eta eskola-komunitateko premiei erantzuteko. Bi ondorio horiei eta gelako premiei lotuta, gainera, hezkuntza-administrazioaren betebeharra dago, bai prestakuntza programa kudeatzeko eta baita emaitzak ebaluatu eta prestakuntzak ikasleengan eta gelan izan duen eragina neurtzekoa ere.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Sailburuordetzak gai horretan duen ardurari erantzuteko hasi du prestakuntza aukeren azterketa eta berrikuspen prozesua.

Ikasle bakoitzaren eta guztien heziketa integrala da hezkuntzaren xedea. Beraz, ikasleen hezkuntza formalean, ez formalean eta informalean partaide diren eragile guztien prestakuntza edo trebakuntza bultzatu beharra dago. Izan ere, hezkuntza-komunitatean partaide den eragile orok, zuzeneko jardunean dabilen heinean, eta erakusteko moduko praktika onak garatzen dituela ikusita, prestatzaile edo trebatzaile rola har lezake, betiere horren eskaera balego.

Ondorioz, prestakuntzaren ohiko hartzaileak irakasleak badira ere, eta txosten honetarako aztertutako datuetan edo egiten diren prestakuntza eskaintzetan irakasleak badira hartzaile nagusi, ikuspegi berri honek aurreikusten du, aukera gehienetan, ikastetxeak bideratuta eskola-komunitatea bere osotasunean izan daitekeela prestakuntza-berrikuntzaren hartzaile potentziala. Hartara, besteak beste, familiak, edota ikasleekiko prestakuntzarekin zerikusia duten beste hainbat eragile⁸.

Azter ditzagun jarraian aipatutako alderdi nagusiak.

Irakasleen kompetentzien profila

Gaur egungo hezkuntza-sisteman, ezinbestekoa da irakasleek hainbat bide urratzea, eta, besteak beste, kulturen arteko bitartekari, hezkuntza-komunitateko sustatzaile eta gidari izatea; beharrezkoa da, irakasleak gai izatea ikaskuntza adierazgarriko egoerak sortzeko, heterogeneotasuna kudeatzeko, beren lanbidez kritikoki gogoeta egiteko eta gaur egungo gizartean hezkuntzak zer toki izan behar lukeen hausnartzeko.

⁸ Halaber, EAEko 2008ko Eskola Ekobarometroak “etorkizunari begira” atalean dioen bezala: “egungo Ingurumen Hezkuntzako programetan hezkuntza- eta gizarte-eragile askok parte hartzen dute. Parte-hartzea hain zabala izaten laguntzen duten bitartekoei bere horretan eustea komeni da eta, halaber, orain arte abian jarri ez direnak gehitzea. Komenigarria litzateke hezkuntza ez-formaleko eta informaleko gizarteko erakundeak eta elementuak inplikatzeko eta IHrekiko koherenteak izatea, eskolak antzeko mezuak jaso ditzan”. Horregatik komenigarria litzateke familia, begirale eta zaintzaileen parte hartzea Jasangarritasunerako Hezkuntzako prestakuntza ekintzetan.

Ikasleei bizitzen irakastea, horixe da hezkuntza-sistema orok xede nagusizat izan behar lukeen ardatza, eta horren arabera trebatu behar lirateke maisu-maistra guztiak. Horregatik, hain zuzen, beharrezkoa izango da irakasleei ondo irakastea zeinen konplexu eta anitzak izango diren egunero aurrean izango dituzten egoerak, halaxe jabetuko baitira haiei aurre egiteko behar izango dituzten gaitasunez:

- Ikasleek pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, besteekin batera bizitzen, norbera izaten, zer edo zer egiten eta ekimenez jokatzen ikas dezaten beharrezkoak diren prozedurak irakasteko gaitasuna.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak aztertzeke, garatzeko eta ebaluatzeke gaitasuna.
- Ikasleengan ikasteko gogoia pizteke eta, etxekoekin lankidetzan, beren bizi-proiektuak nola eraiki orientatzeko gaitasuna.
- Proposamen didaktikoak ikasleen premietara egokitzeko eta moldatzeko gaitasuna.
- Beste irakasle eta hezkuntza-eragile batzuekin elkarlanean aritzeko gaitasuna, eta haiekin batera ikastetxea kudeatzen eta etengabe hobetzen aritzeko.
- Jarduerak gure erkidegoko hizkuntza ofizialak erabiliz lantzeko gaitasuna; baita, beharrezkoa balitz, atzerriko hizkuntzaren batean lantzekoa ere.
- Curriculumean informazioaren teknologiak erabili eta txertatzeko gaitasuna.
- Irakasle-lanbideari buruzko ikuspegi etiko bat lantzeko gaitasuna, eta gizartearekin konpromisoak jokatzeke, irakaslea ere gizarte-eragile denez gero.
- Hezkuntzan jarduteak dakartzan problemak eta gatazkak konpontzeke gaitasuna.
- Norberaren etengabeko prestakuntza planifikatzeko gaitasuna.

Irakasleek aktiboki hartu behar lukete parte zenbait auziri buruzko gogoetetan, eta, hala, berei legokieke, berez, ikasleek zer eta nola ikasten duten hausnartzea eta hezkuntza-sistemaren xede nagusiak zein diren aztertzea. Horretarako, ezinbestekoa da maila eta kalitate handiko prestakuntza akademiko eta pedagogikoa eskaintzea irakasleei, eta, horretan, sektore sozio-ekonomiko eta kultural askotako lantaldeek parte hartzea, gizarteak berak ere konfiantza handiagoa izan dezan haien lanean.

Europar Batasunaren gomendioak

Europako Batzordeko Hezkuntza Kontseiluak, TALIS txostenaren⁹ gomendioei jarraiki, irakasleen garapen profesionalari lotutako politikak bultzatzen eta babesten ditu, besteak beste, honako helburu hauekin:

- Hezkuntzako profesionalei etengabeko prestakuntza ematea. Prestakuntza horrek irakasleen hasierako prestakuntzaren, laguntzaren eta garapen profesionalaren arteko koordinazioa bermatu behar du, prestakuntza-eta ikasketa-aukera formalak eta informalak eskainiz.

⁹ TALIS, www.oecd.org/dataoecd/4/1/43058438.pdf

- Balio profesionalak sustatzea, irakasleak beren jarduerari buruz hausnartzera eta beren lanean berritzaileak izatera bultzatzeko. Baliook hezitzaileen lanbideari prestigioa emateko eta eskola-lidergoko aukerak lortzeko balio behar dute.
- Hasierako eta etengabeko kalitatezko prestakuntza eskaintzea, hezitzaileek eskola-erakundeen, irakasleen eta, oro har, gizartearen behar aldakorrei erantzuteko aukera izan dezaten.

Ildo berari jarriki, Europar Batasunaren zenbait dokumentuk^{10 11} XXI. mendeko irakasleek behar dituzten konpetentziei erreferentzia egiten diete (ikus 12. orrialdeko irudia). Agiri horiek dituzten printzipio komunak arabera, irakasleak honako hauetarako gai izan beharko lukete (Finnish Institute for Educational Research, 2009: 49-50):

- *Informazio, teknologia eta jakintzarekin lan egiteko.*
- *Beren testuinguruko edo hezkuntza-komunitateko pertsonekin –ikasleak, irakasleak eta hezkuntzako beste eragile batzuk– batera lan egiteko.*
- *Gizartean eta gizarterako lan egitea, dela tokiko edo eskualdeko mailan, dela Estatu edo Europa mailan, bai eta maila globalagoetan ere.*

Halaber, Europar Batasuneko Kontseiluaren garapen jasangarrirako hezkuntzarako ondorioen arabera (2010/C 327/05)¹²:

Hezkuntza eta prestakuntza ezinbestekoak dira, Europa eta mundua jasangarriagoak izan daitezten. Garapen jasangarrirako hezkuntzak etengabeko heziketaren parte izan behar du eta txertatu egin behar da, hala dagokionean, hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparru guztietan; herritar guztien gaitasuna sendotzeko eta gai izan daitezten bizitzan zehar topatuko dituzten ezusteko eta berehalako arazoei aurre egiteko eta erantzun iraunkorrak emateko.

Gainera, kontuan izanik, batetik, hezkuntzari lotutako profesionalak etengabe aldatzen ari diren eskaerei aurre egin behar dietela eta, bestetik, irakasleek beharrezkoak dituzten konpetentzia profesionalak sustatu eta garatzeari esker ikasleek emaitzak hobetzen direla (Europako Batzordea, 2012)¹³ gomendagarria da hezkuntzako profesionalen hasierako eta etengabeko prestakuntza sustatzea.

¹⁰ Common European principles for teacher competence and qualifications (2005).

¹¹ Commission communication 'Improving the quality of teacher education'.

¹² Europar Batasuneko Kontseiluaren garapen jasangarrirako hezkuntzarako ondorioak (2010/C 327/05) <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2010:327:0011:0014:ES:PDF>

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Ingurumen Lurralde, Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKOLA EKOBAROMETROA 2008:

https://www.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_edu_ambi/adjuntos/800012e_euskal_ekobarometro_2008_e.pdf

¹³ Ikus dokumentu honen 22 eta 28 arteko orriak: COMMISSION WORKING DOCUMENT. SWD(2012) 374 final. *Supporting the Teaching Professions for Better Learning Outcomes*. Rethinking Education: Investing in skills for better socio-economic outcomes.

2.2. Prestakuntza planaren lehentasunezko ildoak, ezaugarriak eta modalitateak

2.2.1. Lehentasunezko ildoak

Batetik, euskal hezkuntza-sistemaren instantzia ugari jasotako eskaeretatik eta detektatuko premietatik; bestetik, irakasleek behar duten kompetentzi-profila, ezinbestekoa dena ikasleekin Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoak bultzatzen duen kompetentzietan oinarritutako heziketa eskaini ahal izateko; eta, azkenik, Europar Batasunak eta adituek egindako gomendioetatik abiatuta honako lehentasunezko lan ildo hauek proposatzen dira:

- Eleaniztasunerantz
- Sare_Hezkuntza
- Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikasi
- Ikasten ikasteko eta norbera izaten ikasteko oinarritzko kompetentzien garapena
- Bikaintasunerantz praktika onen eta ekintzailtzaren bidetik

Lehentasunezko lan ildo hauek ez dituzte prestakuntza plan honen oinarri teorikoek eskatuko luketeen prestakuntza eremu guztiak hartzen. Horregatik, hurrengo orrialdeetan aztertzen dira orain arte aipatutako osagai naguziak.

2.2.2. Prestakuntzaren ezaugarriak

Esan liteke eskoletako irakasleak eta langileak hazi egiten diela, hartako kide direnek taldean lan egiten, beren bizipenak konpartitzen eta ezagutza sortzen ikasten duten neurrian. Hala, bada, prestakuntza-ildo berriak urratzea ez ezik, esku-hartze pedagogikoko modu berriak sortu beharra ere badakar ikastetxe bateko maila guztietako lagileriak elkarrekin lanean arituz ikasten aritzeak. Kide bakoitzaren eta instituzioaren beraren gaitasun potentziala elikatzen du delako prestakuntza horrek, eta berrikuntzak urratsak egitera eramaten, ideiak sortzeko gaitasunaren eta zenbait proiektu berritzaile abiaraztearen bitartez.

- Etengabeko prestakuntzak ez ditu azken xedetzat irakasle eta eskoletako langileak hartzen, ikasleak baizik, eta, alde horretatik, irakasleek konpromisoz eta arduraz jokatu behar dute, delako prestakuntza hori praktikan jarri eta aurretiaz ezarritako helburuak ikasturtez ikasturte betetzeko.
- Ikastetxeetan bikaintasunerantz bideratzeko berrikuntza-proiektuak martxan jartzen direla bermatu behar du prestakuntzak. Prestakuntzarekin batera, ezinbestez jarri behar dira abian berrikuntza-prozesuak; alegia, ikastetxe bateko esparru guztiei eragingo dieten aldaketa-planak: curriculumeko alderdiei, metodologiari, antolaerari, etxekoekin, zenbait entitaterekin nahiz komunitateko instituzioekin elkarlanean jarduteari, ikasgelan lan egiteko moduari...
- Alderdi indibidualenetan oinarritutako prestakuntza-eredua baztertu egin behar da, eta, horren orde, eskoletan ardaztutako prestakuntza-ereduak bultzatu, lekuan lekuko ikastetxeetako premietara egokitutako proiektuen

bitartez, eta, horretan, lekuan lekuko proiektu eta planak hartu behar dira kontuan: hobekuntza-planak, esku-hartze globaleko proiektuak, hezkidetzak-proiektuak...; eta hezkuntza-komunitateek bizi dituzten errealitate askotarikoak ere kontuan hartu behar dira: ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideentzako prestakuntza-proiektuak, esaterako. Horregatik, mundu osoko adituek proposatzen dutenez, ikastetxean "Ikaskuntzarako Komunitate Profesional" bat sortu behar da, irakasleek ezaguerak eta esperientziak konpartitu ditzaten, ikasleen ikaskuntza hobetzea helburu hartuta.

- Dena dela, prestakuntza indibidualak beharrezko izaten jarraitzen du, geure hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruko eskakizun berriei erantzuteko batez ere, hura gabe ezin gerta baitaiteke inolako mentalitate-eta sinesmen-aldaketarik. Ezinbestekoa da, hala ere, prestakuntza hori lekuan lekuko ikastetxeak daudeneko testuinguruan kokatzea.
- Azkenik, beharrezkoa da prestakuntza-prozesuaren baitan beronen garrantzia bera ere ebaluatzea, eta, horretarako, sakon aztertzea prozesu horrek zer eragin dituen bai ikasgelan, bai, oro har, ikastetxeko eguneroko bizitzan (curriculum-esparruan, antolieran, metodologian, ebaluazioetan, etxekoekin eta gizarteko nahiz komunitateko entitateekin elkarlanean jardutean...). Prestakuntza-proiektu guztietan beren garrantzi eta eraginei buruzko informazioa eman behar denez gero, nahitaezkoa izango da zenbait adierazlez baliatzea, proiektuon ondorioak sistematizatzeko eta objektibatzeke.

Bada berrikuntza-prozesu hauek sortzen eta garatzen lagun dezakeen beste mekanismorik. Mekanismo edo eskakizun horiek erreferentzia egiten diote, batetik, hezkuntza-sistemak prozesu horiek bultzatzeko sustatzen dituen antolakuntza eta garapenari eta, bestetik, hasieran nahiz berrikuntzaren garapenean suertatu behar diren baldintzei. Hezkuntza-sistemak zentroetan berrikuntza-prozesuak sortzeko egin behar dituen ekimenek honako betekizun hauek hartu behar dituzte kontuan:

- a) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren proposamenek eta orientabideek lan kolaboratzailea bilatu behar dute, eta lan horretan hezkuntza-komunitateak, hezkuntza-ikuskaritzak, laguntza zerbitzuek, unibertsitateek eta bestelako erakunde publikoek eta gizarte-ekimenekoek parte hartu behar dute
- b) Hezkuntza Sailburuordetzak bultzatutako deialdiek zentroek beren ohiko funtzionamenduan prestakuntza- eta berrikuntza-dinamikak sartzeari erraztu behar dute.
- c) Hezkuntza Sailburuordetzak praktika berritzaileak sartzeko dituzten zentroei eskaintzen dizkieten pizgarri ekonomikoek, haiek martxan jartzeko, eta haien jarraipena egiteko adinakoak izan behar dute.
- d) Hezkuntza Sailburuordetzak zentro horiei eskaintzen dizkien giza baliabideek berrikuntzak gauzatzeko egokiak izan behar dute.

2.2.3. Prestakuntza modalitateak

Irakasleen etengabeko prestakuntzan eta doikuntzan garrantzi handia aitortzen zaio ikastaro modalitateko prestakuntzari, batez ere, ikastetxean bertako irakasle talde handi bati edo osoari ematen zaion ikastaro teoriko-praktikoei (orain arte, Berritzeguneko Moduluak, GARATU ikastetxeetan bezala ezagutu ditugunak edota IRALE H ikastaroak bezalakoak). Esparru bereziak lantzeko ezinbesteko modalitatea izaten jarraitu beharko lukete. Berritzeguneetako Moduluak, IRALEk eta Prest_Garak hartzaile bera dute sarritan, eta osagarriak beharko lukete. Hau da, euskara lantzeaz gain, hizkuntzaren didaktika eta bereziki, H2ren didaktika lantzeko aukerak handitu beharko lirатеke eta horrekin batera Prest_Gara-ren eskaintzan euskaraz eta ingelesez egiteko aukerak areagotu beharko lirатеke.

Kasuan kasuko prestakuntza modalitate ezberdinak behar dira. Azken aldian, banakako prestakuntzatik talde prestakuntzarako ibilbidea, mintegietan eta, egiten ari gara.

Talde horietan, ezagutza eraikitzen da, inguruko eskoletako kideen gaitasun berritzaile eta sortzailearen bitartez; izan ere, honako alderdi hauek azaltzen eta aztertzen dira, besteak beste: esperientziak zer-nola garatzen diren ikasgelan, zer estrategia eta erantzun erabiltzen diren ziurgabetasun-egoeren aurrean, irakasleak zer-nola erantzuten duen askotariko errealitateen aurrean eta taldean lan egiten duten profesionalen sinesmenak eta aurreiritziak zer-nola argitzen diren (Kahane, 2004). Saioen maiztasuna, sistematizazioa eta egitura ona (helburuak, zereginak, metodologia eta rolak) funtsezko faktoreak dira trukea eraginkorra eta denentzako aberasgarria izan dadin.

Mintegiek, eskolartekoak nahiz eskola barnekoak, garrantzi berezia dute. Izan ere, mintegien modalitateak esperientzien trukea, praktiken analisisa eta baita berariazko prestakuntza ere batzen eta ahalbidetzen ditu.

Ezin aipatu gabe utzi badaudela ikastetxeak edo, hobeto esanda, eskola-komunitateak, praktika onak bakarrean garatzen dituztenak, hain zuzen ere esperientzia berritzaileen hasieran. Eskola-komunitate horiek, dela euren berezko ezaugarriengatik, dela testuinguraren premiei erantzun beharagatik, dela erabilitako ikas-irakas praktikaren edota antolamenduagatik, ohikoak ez diren edo espero daitezkeen emaitzak baino hobekiak lortzen dituzte¹⁴. Ikastetxe horien jarduna balio erantsi handikoa izateaz gain, bikaintasunaren eta praktika onen ereduagarria ere bada gainontzeko ikastetxeentzat.

Horregatik Prest_Gara prestakuntza eskaintzan lehentasuna emango zaio sareak, mintegiak eta lan-taldeak sortzeari, hezkuntzako profesionalek praktika onak gara ditzaten eta hezkuntzako esperientzia parteka dezaten Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak eratuta dituen hezkuntzako laguntza zerbitzuez (Berritzeguneak, IRALE, Ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako zentroak, Ingurugelak, Ikusteko urritasuna duten ikasleentzako baliabidetegiak eta Euskal Girotze Barnetegiak) edo beste erakunde batzuez baliatuz.

¹⁴ Eta hala da hori EHUak eta ISEI-IVEIk egindako eta argitaratuta “*Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak*” izeneko ikerketaren 1. faseak (2012) erakusten duenez.

Prest_Garako ikastaroen eskaintzan zenbatekoa den euskaraz edo ingelesez eskaintzen diren ikastaroen portzentajea hartu beharko litzateke aintzat. Lantzen diren gaiak, gerora, ikasleekin landuko badira, eta horiek hein handi batean D ereduetan edota proiektu eleanizetan baldin badaude, egokiagoa litzateke gai horien prestakuntza gerora irakatsiko den hizkuntzan egitea. Edukiak euskaraz/ingelesez lantzeaz gain, irakasleen gaitasuna, hizkuntza horretan, areagotzeko baliagarria izango litzateke. Irakasleen prestakuntza, modu nabarmenean, euskaraz bideratu beharko litzateke eta ahal den kasuetan H3an ere. Hizkuntza horietan sortu, garatu, transmititu eta partekatu beharko baitituzte irakasleek ezagutza horiek bere eguneroko lanean.

Horrekin batera, eskola bakoitzaren beharretara egokituta eratzen diren prestakuntza saioak bide dira eraginkorrenak. Berritzeguneetako Moduluak, Prest_Gara-k eta IRALEko H ikastaroak, ikastetxean bertan eginez, eta ikastetxeek hautatutako gaia jorratuz, oso ondo baloratuak izan dira sarritan. Ildo horretan sakonduz, eta Hobekuntza Planetako beharrei erantzunez, antzeko prestakuntza saioak antolatzeke aukerak arakatu beharko genituzke.

2.2.4. Prestakuntza eta berrikuntza eragileak

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, irakaskuntzaren kalitatea etengabeko hobekuntzan mantentzeko eta aurreko 2.1. atalean aipatutako etengabeko prestakuntza premiei eta eskakizunei erantzuteko goitik beherako egitura sortu eta arautu du.

Halaber, jarraikako prozesuari zein unean uneko behetik gorako eskaera, premia eta aldaketei¹⁵ behar bezela erantzun ahal izateko, egitura horretako zerbitzuen bilakaera bizia ere ikusi izan dugu. Halatsu ulertu eta eskatu dute, gainera, zerbitzu gehienek ere eta, ondorioz, egitura horretako zerbitzuen zein betebeharrak zein eginkizunak berrikusi eta berrarautu izan dira urteak aurrera¹⁶.

EAEko irakasleen prestakuntzak bizi izandako bilakaera eta Europako Komisioaren 2020 Estrategia abiaburu, gaur gaurkoz Hezkuntza, Sailburuordetzak sinergiak bilatu eta bultzatu nahi ditu ikasleei eskaintzen diegun ikaskuntzaren kalitatea hobetzeko lanean diharduten laguntza-zerbitzu eta prestakuntza eragile guztien artean. Izan ere, helburu horretarako administrazioak propio sortutako zerbitzuek eta aldi-aldi, administrazio-bide ezberdinen laguntzen bitartez, parte hartzen duten erakundeek eta aditu-elkarteek lankidetzan jardutea ezinbestekoa ikusten da, hain zuzen ere, egunez egun, gau eta egun, aldaketan dagoen gizartean eskola-komunitate eta irakasleen prestakuntza-berrikuntza premiei ahalik eta kalitate etiko eta zientifiko goreneko erantzuna eman ahal izateko.

¹⁵ Eskaera horien bilketa, transmisioa eta defentsan aritu dira, besteak beste, Euskadiko Eskola Kontseilua, Guraso Elkarten Konfederazioak, langileen babeserako sindikatuak, Irakas-sistema ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea eta baita hezkuntza-administrazioak berak dituen organo kontsultibojuridikoa.

¹⁶ Ikusi, besterik ez dago, irakasle-eskolen ikasketa antolamenduan izandako bilakaera, laguntza-zerbitzuen berrantolaketak ekarri eta sortu duen arau-mailako bilakaera edota ikastetxeetan lanean diharduten irakasle eta langile ez irakasleen eskubide, betebeharrak eta lan baldintzetan ikusitako eboluzioa.

Hasierako eta etengabeko prestakuntza-trebakuntza Unibertsitate, Irakasle-Eskola eta eragile aditu batzuen laguntzarekin.

Unibertsitateetako Irakasle-Eskolak eta gainontzeko fakultateak, batetik, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, bestetik, lankidetzaren hitzarmenak egin dituzte azken hamarkadetan. Hitzarmen horiek ezinbesteko garrantzia eduki dute eta daukate bai irakaslegaien prestakuntza-trebakuntzan eta bai jarduneko irakasleen prestakuntzan ere.

Izan ere, Unibertsitatea beste lankidetzaren arlo interesgarri bat da. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzatik eta Unibertsitatearen irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko prestakuntza-prozesuak proposatzen zaizkie bai irakaslegaiari, eta bai jarduneko irakasleei aldian aldiko jardunaldietan, ikastaroetan edota ikerketa-prozesuetan parte hartzearen bidez. Irakasleek ikerketa-proiektuak egiteko aukera dute, unibertsitatekoak ez diren hezkuntza-zentroei zuzendutako aldizkako deialdien bitartez. Azken urteetan, gero eta aukera handiagoa dute zentroek ikerketak egiteko, eta 90eko hamarkadan hasitako goranzko joera finkatu egin da (CIDE, 2000 eta 2005). Bada eskolak eta unibertsitateak batera aritzeko beste lan-esparru bat: unibertsitateak buru diren eta ikerketan bertan eragina duten zenbait aldaketa-prozesu praktikan jartzeko, eskolen beharra duten ikerketa-prozesuetan parte hartzea (arloan ezberdinen didaktika, alderdi metodologikoak eta ebaluazioak). Kasu horietan, lana zentro arteko mintegi edo taldeen bidez egituratzen da. Horietan, irakasleak bere berrikuntza-prozesua beste kide batzuekin eta adituekin partekatzen du. Oso lankidetzaren beharrezkoa eta aberasgarria da bi aldeentzat, eta lan bateratua ezinbestekoa da: jakintza akademikoa esperientzia zuzenarekin aberasten da, eta ikasgelako irakasleak edo irakaslegaiak benetako aplikazio-testuinguruetan bereganatzen du prestakuntza.

Eskolaren, Laguntza Zerbitzuen eta Unibertsitatearen arteko harremanean bideak ireki nahi dira eta bide horiek egonkortu, Eskola-elkarteen, Laguntza Zerbitzuen eta Unibertsitatearen arteko elkarrekin eta trukeak funtsezkoak direlako guztiontzat. Izan ere, orain arte metatutako ezagutzak honako hauek egiaztatzen lagundu digu:

- a) Unibertsitatearen ikuspuntutik, prestakuntzaren logikak (jakintza teorikoagoetan ardaztua) osagarria du eskolan, irakasleak bere lanbidean eraiki duen jakintza praktikoarekin uztartzean. Ezin baita ahaztu ekintza edo jardueraren bera dela lanbide orotan ikaskuntza profesionala egiteko baliabide pribilegiatua.
- b) Eskolaren ikuspuntutik, Laguntza Zerbitzuek eta Unibertsitateak formazio planak bideratu ditzakete, zentroaren neurria, bottom up estrategia baten barruan, berrikuntza prozesu konplexuak martxan jartzeko eta irakasleen burujabetza prozesuak bideratzeko. Hartara, denboran zehar iraungo duten emaitzak lortzea ahalbidetzen da. Europako Batzordeak ere proposatzen du Eskola-Laguntza Zerbitzu-Unibertsitate arteko harremanak areagotzea hezkuntzaren kalitatean eragiteko: *“Links between teacher educators, practicing teachers, the world of work and other agencies need to be strengthened. Higher Education institutions have an important role to play in developing effective partnerships with schools and other stakeholders to ensure that their Teacher Education courses are based upon solid evidence*

and good classroom practice” (Commission of the European Community, 2007: 15).

- c) Laguntza Zerbitzuen prestakuntza ekintzen baitan ere lekua dute Unibertsitateko adituek. Gai jakinetan beraien ekarpena ezinbestekoa da. Prestakuntzaren egokitasuna ziurtatzeko, jarraikortasuna ematea eta harreman sare horiek sendotzea bilatu beharko genuke: prestakuntza elkarrekin diseinatuz, elkarrekin ebaluatuz, elkarrekin ikertuz etab. Horrez gain, gertuko eragileak kontuan gehiago hartu beharko lirateke. EAEko hezkuntza-sistema gertutik ezagutzen dutenak izatea eta, lehengoaren haritik, gai horiek gerora ikasgelan eta eskola-komunitatean irakasleek erabili behar duten hizkuntzan landuko dituztenak garatzea.

Prestakuntza “gogoetatsuaren” arrakasta (Schön, *The Reflective practitioner: How professionals think in action*, 1983) kontuan hartzea, proposatzen da. Europako Batzordeak hobesten duen bezalaxe¹⁷.

Bestela esanda, planteamendu bakarrean uztartu beharko lirateke prestakuntza bera eta prestakuntzari buruzko ikerketa. Izan ere, formazioa eta ikerketa praktika sozial osagarri gisa hartzen dira: formazioa ikertuta formazio bera hobetu daiteke (Durand, 2008). Gainera, prestakuntza ikertzean, irakaslearen jarduerari duen balioa ematen zaio da, eta horrek irakasle ofizioa nobletzea dakar; dagokion sakontasuna, konplexutasuna eta garrantzia aitortzea, hain zuzen ere.

Hezkuntza-komunitateko gainerako eragileekin partekatutako prestakuntza^{18 19}

Testuinguruak ere ikaskuntza-aukera ugari eskaintzen ditu, gizarte-arloko profesionalen arteko harremanak eta loturak sustatzen dituelako. Horren ildotik, komunitateak irakaskuntza formalaren eta ez-formalaren arteko loturak errazten ditu, bai eta Tonuccik (2013) orain dela gutxi *hiri hezigarritzat* jo duena lortzeko bidea ere.

Izan ere, egun, eskolak erakunde komunitarioekin aritzen dira lanean, maila ezberdinetan, eta lankidetzaren sareak ezartzen dituzte udaletako ongizate, lan, berdintasun, hezkuntza, ingurumen eta beste arlo batzuekin, dela ezarritako proiektu ofizialetan, esate baterako, Eskolako Agenda 21, hizkuntza-normalizazioarako proiektuak eta osasun-proiektuak; dela noizbehinkako kolaborazioetan (bilerak eta prestakuntza-eskaintzak).

¹⁷ Commission of the European Community (2007). *“In a context of autonomous lifelong learning, their professional development implies that teachers:*

- *continue to reflect on their practice in a systematic way;*
- *undertake classroom-based research;*
- *incorporate into their teaching the results of classroom and academic research;*
- *evaluate the effectiveness of their teaching strategies and amend them accordingly; and*
- *assess their own training needs”*


¹⁸ Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila (2012) *Elkarrekin erabaki, hobeki kudeatzeko* (2012) liburua. 27/2006 Legea, herritarren parte-hartzeko eskubidearen oinarri juridiko-etikoak ezartzen dituena.

¹⁹ Ikus hezkuntza-komunitatearen parte-hartze eraginkorrari lotutako erreferentzia gehiago hemen: http://phobos.ramapo.edu/~vasishth/Readings/Wilcox-Guide_To_Effective_Participation.pdf
<http://campus.usal.es/~dpublico/areacp/materiales/6.3.nuevasperspectivas.pdf>

Ildo horretatik eta gure erantzukizunetik, interesgarria da irakasleei jakinaraztea beren komunitatean gertatzen denak beren lanean ere eragiten duela onartzeak duen garrantzia, bai eta, denen onerako hezkuntzako eta komunitateko eragile guztien inplikazioa eta konpromisoa behar direla denen artean eskola hobetzeko eta irakasleen jardunbideak duen balio erantsia lortzeko.

Azken batean, komunitatearen sormena baliatu behar da eskola hobetzeko, eta, horretarako, modu berritzailean eta lankidetzan lan egin behar da, ikasleen aurrerapen ona lortzeko. Eskolak eta komunitateak lortu behar dute denen esperientzia baliatzea xede bera lortzeko helburuz.

Hurrengo orrialdeko irudian islatu dugu ikasleen oinarrizko gaitasunen garapenean eta eskola-komunitate eta irakasleen prestakuntza-berritzuntzan egun aritzen diren zerbitzu eta erakundeen multzoak. Labur beharrez egin da irudia eta, gainera, egiturak izaera dinamikoa duela jakinez, ez dira denak aipatzen. Edonola ere, multzo horietan dihardutenen ekarpenen arteko sinergia eta osagarritasuna suspertzearen aldeko apustua egin nahi dugu, betiere, eskola-komunitateetan izaten duten eragina ebaluatuta, arau-mailako betekizunak aintzat hartuta eta eragileen adostasunak lortuta.



3. Ikastetxeetako prestakuntza-berrikuntza plana ezartzea

3.1. Plana ezartzeko estrategiak

Planifikazio honen xedea zera da: ikasleek nahitaezko eskolaldia bukatzean aurreikusitako oinarriko konpetentziak lor ditzaten eta irakaskuntza lanbide prestigiduna izan dadin, eskola-elkarteko eragile guztien gaitze profesionala lortzea.

1. ESTRATEGIA. Ikastetxeen prestakuntza eta berrikuntza prozesuetan Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ezarritako lehentasuneko ildoak implementatzea

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarentzat, hezkuntza-sistemaren helburua ikasleen erabateko hezkuntza da. Horretarako, oinarriko konpetentziak eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatu behar da, aniztasuna eta gaitasun ezberdinak behar bezala kudeatuz eta bikaintasunerantz etengabe aurrera eginez. Sistemak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan etengabeko hobekuntza bilatu behar du, bai eta hezkuntza-komunitate osoak prozesu horretan laguntzea ere.

Hori horrela izanik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lehentasuneko ildoak ezarri ditu, eta horietara bideratu behar dituzte ahalegin guztiak hezkuntza-zerbitzuek 2014-2017 aldian. Ildook kontuan hartu beharko dira Irakasleen Prestakuntza/Berrikuntza Plana definitzerako orduan, 2014-2017 aldian.

1. ILDOA: ELEANIZTASUNERANTZ

Eginkizuna:

Eskola-elkartek prestatu ikasleek komunikatzeko konpetentzia nahikoak gara ditzaten bi hizkuntza ofizialetan eta hirugarren hizkuntza batean (funtsean, ingelesean). Eta ikasleek garatutako Hizkuntza Komunikazioarako Gaitasun elebidun-eleaniztun hori asertibitatez, egokitasunez eta eraginkortasunez kudeatu dezaten gizarte-testuinguru gero eta anitzagoetan eta konplexuagoetan, izan hemengo gizarte sareetan zein mundu globalizatuan.

- *Mundura eta beste kultura batzuetara irekita dagoen euskal gizarte eleanitza sortzeko. Euskara hizkuntza komuna izango duena; ekitatea, inklusioa eta gizarte-kohesioa areagotzeko*
- *Euskararen erabilera zabala eta kalitatezkoa lantzea eta eskaintzea*
- *Mugikortasuneko eta kultura-, arte- eta zientzia-trukeko aukera-berdintasuna erraztea.*
- *Dimentsio euskalduna eta europarra integratzea.*

Helburuak:

- *Hizkuntza guztien trataera bateratua eta ikasitako hizkuntzen arteko transferibilitatea bultzatzea*

- Hizkuntza guztien trataera integrala bilatzea hizkuntzakoak ez diren gainerako arlo guztietan.
- Trebatzea hizkuntzetan espezialista diren irakasleak metodologia berrietan eta baliabide didaktikoetan, ahozko dimentsioa nabarmenduta, ahozko hizkuntza erabilera-hizkuntza izan dadin, ez soilik ikasketa-hizkuntza.
- Hizkuntzetan espezialista diren irakasleen arteko koordinazioa errazteko beharrezkoa duten aholkularitza ematea.
- Irakasleekin partekatzea ikas-irakas prozesuen jarraipen eta ebaluazioen ondorioak.
- Irakasleak prestatzea egungo ikasleek beharko dituzten komunikazio trebetasun berriak garatzeko. Izan ere, XXI mendeko euskal gazteek hizkuntza-prestakuntza luze-zabalagoa beharko dute; norberaren kompetentzia eleanitzaren kudeaketak eta gizartearen aniztasun eta konplexotasun hazkorrak plantetatuko dizkien erronkei erantzuteko.
- Baliabideak eskaintzea Hezkuntza alorreko eragileei hizkuntzaren erabilera kalitatezkoa, hizkuntza ahularen aldeko jarrera eta jokaera garatzeko.
- Hizkuntzen arteko bizikidetzatza ziurtatzea.
- Atzerriko hizkuntzan espezialistak ez diren irakasleak gaitzea, edukiak hirugarren hizkuntza batean eman ahal izan ditzaten.
- Irakasleen artean europar egitarauen markoaren barne dauden prestakuntza-ekintzetan parte-hartzea erraztea.

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko ikastetxeen %100ean, bertako hezkuntza-komunitateek hala adostu dutenean proiektu hirueleduna edo eleanitza garatzen dute.

2. ILDOA: SARE_HEZKUNTZA

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak prestatu ikasleek tresna digitalak eraginkortasunez erabiliz gaitasun digitala eskuratzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko.

Helburuak:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzen lagun dezaketen tresna digitaletan trebatzea.
- Tresna digitalek ikasgelan erabiltzen den metodologian izan ditzaketen erabilera eta aplikazioen berri ematea.
- Irakasleek material digitalak (dela beren jakintza-arloari buruzkoak, dela prestakuntza edo ebaluaziokoak) sortzea bultzatzea.
- Hezkuntza- edo prestakuntza-baliabide gisa interesgarria izan daitekeen edozer material eskura jarri edo kontsultatu ahal izateko espazio bat eskaintzea.

- Euskara teknologiaren arloan erabiltzea erraztea.
- Irakasleek sortutako material digitala biltzeko eta sailkatzeko web-espazio bat eskaintzea.

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko ikastetxeen %60ak IKT heldutasun tarteko maila adierazten duen ziurtagiria lortu dute eta horietatik %20ak aurreratua.

3. ILDOA: ANIZTASUNEAN ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak elkarrekin bizitzen ikasteari lotuta dauden oinarrizko konpetetziatan prestaku, ikasle guztiek hezkuntza-komunitatearen barruan daudela senti dezaten, eta beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea, pertsonen eskubideak eta duintasuna errespetatuta. Eta ikasleak prestatzen joatea XXI mendeko (hemengo eta mundu zabaleko) gizarte anitz eta konplexuan duintasunez jasangarritasunaren ildotik bizitzeko.

Helburuak:

- Irakasleak eta familiak pertsonen arteko komunikazio asertibori eta enpatikoari lotutako konpetentzietan trebatzea.
- Talde kolaboratiboetan eta kooperatiboetan aritzen ikasteko trebatzea.
- Giza eskubideak eta oinarrizko gizarteko arauak errespetatuz jokatzeko trebatzea.
- Irakasleak eta familiak ikasgelako eta gelaz kanpoko liskarren eta jokabide arazo larrien kudeaketan trebatzea.
- Eskola-elkartean *Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa (2012-2016)* bultzatzea.
- Irakasleei, oro har, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak antzemateko tresnak ematea.
- Irakasle espezialistei eta gainerako hezkuntzako langileei hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak detektatzeari, identifikatzeari eta artatzeari buruzko etengabeko prestakuntza erraztea.
- Irakasleei ikasle ororen, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleena barne, presentzia, parte-hartzea eta lorpena errazten duten ikas-irakas metodologiei eta estrategiei buruzko prestakuntza ematea.
- Gelan adimen anitzak garatzeko prestakuntza ematea.
- *Bake eta Bizikidetzaren Plana (2013-2016)* bultzatzea.
- *Hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa hezkuntza sisteman lantzeko gida-plana* bultzatzea.

- *Adimen gaitasun handiko ikasleen hezkuntzarako planean aurreikusitako jarduerak bultzatzea.*
- Irakasleei prestakuntza eskaintzea testuinguru kaltetuetan bizitzeagatik gizarte bazterkeriaren arriskuan egon daitezkeen ikasleei behar duten arreta emateko.
- *Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana (2012-2015) bultzatzea.*
- Irakasleei bertako zein Europako testuinguruetan bizikidetzaren eta aniztasunaren arretaren arloko esperientzia, proiektu, jakin-nahi eta abarren trukerako espazio bat ematea.
- Irakasleek eta ikasleek benetako testuinguruetan beharrezkoak dituzten trebeziak garatzeko, mugikortasuna erraztea.
- Hezkuntza-komunitatea prestatzea egungo ikasleei hizkuntza-elkarbizitzarako trebetasunak garatzen laguntzeko. Izan ere XXI mendeko gazteek hizkuntza-elkarbizitza "bestela" garatzeko moduan egongo dira, eta hizkuntza-elkarbizitzari era kontzientez eta ekitatez ekiteko hainbat gizarte trebetasun garatu beharko dituzte (asertibitate, empatia, elkartasuna...)
- Jasangarritasuna, ekitatea, justizia soziala eta elkartasuna bizitzeko kompetentzietan prestatzea.
- Eskolako kideak prestatzea ikasleak biodibertsitatearen errespetu eta zainketa trebetasunak garatzen laguntzeko, pertsona, kultura eta hizkuntza dibertsitateak, Planetako biodibertsitatearen barne daudela ulertuz.
- Unibertsitateak eta gainontzeko Sail eta eragileekin elkarlanean prestakuntza ekintzak sustatzea.

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko ikastetxeen %100ean ikasleen oinarrizko kompetentzien garapena bermatuko duten hezkuntza proiektuak daude abian bertako hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan.

4. ILDOA: IKASTEN IKASTEKO ETA NORBERA IZATEN IKASTEKO OINARRIZKO KONPETENTZIEN GARAPENA

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak eta irakasleak prestatu ikasleek beren garapen pertsonalerako eta gizarte-kohesiorako oinarrizkotzat definitu diren kompetentziak gara ditzaten.

Helburuak:

- Honako trebetasun hauetan prestatzea, gerora ikasleei irakatsi ahal izateko: informazioaren bilaketa, sailkapena eta erregistroari lotutako trebetasunak; informazioaren ulermenari eta buruz ikasteari lotutako trebetasunak; eta, sormenari eta ideien hautaketari lotutako trebetasunak.
- Irakasleei tresnak ematea, ezagutzak eskuratzean oinarritutako curriculum batetik kompetentzien curriculum batera igarotzea errazteko.

- Irakasleei laguntzea ikasleen oinarrizko kompetentziak hobetzeko proiektuak garatzen .
- Ikasleei oinarrizko kompetentziak eskuratzen edo beren maila hobetzen lagunduko dieten metodologia berrietan edo tresna didaktikoetan trebatzea.
- Norberaren pentsamendua, norberaren emozioak, norberaren jokabideak eta ahaleginak autorregulatzen ikasteko trebatzea, gerora ikasleei irakatsi ahal izateko.
- Irakasleei, oro har, eta kotsultoreei eta orientatzaileei, zehazki, tresnak ematea, oinarrizko kompetentzia bat edo batzuk hobetzeko zailtasun handienak dituzten ikasleei laguntzeko eta haien jarraipena egiteko.
- Irakasleei bertako zein Europako testuinguruetan oinarrizko kompetentziak eskuratzearen eta hobetzearen arloko esperientziak, proiektuak, jakin-minak eta abar trukatzeko espazio bat ematea.
- Paradigma sistemiko baten baitan jasagarritasuneranzko kompetentzien garapena sustatzea.

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko ikastetxeetan dauden ikasleen % 100ak bere garapen integrala (bestek beste kompetentzia, emozio eta giza harremanen mailakoa) bermatzeko premiazkoa duten arreta jasotzen dute ikastetxe bakoitzari dagokion hobekuntza planaren jarraipenaren bidez.

5. ILDOA: BIKAINASUNERANTZ PRAKTIKA ONEN ETA EKIMENEN BIDETIK

Eginkizuna:

Eskola-elkarteak prestatu ikasleek kompetentzia pertsonalaren, beren gaitasunarekiko konfiantzaren, lorpenerako motibazioaren, erantzukizunaren eta autonomiaren sentimendua eskura dezaten.

Helburuak:

- Tresnak ematea ikasleen kompetentzia pertsonala, lorpenerako motibazioa eta ahaleginaren balorazioa lantzeko.
- Irakasleei laguntza ematea bikaintasunerako berrikuntza-proiektuetan.
- Metodologia berrietan edo tresna didaktiko berritzaileetan trebatzea, bikaintasunerako bidean.
- Irakasleei, oro har, eta tutoreei eta orientatzaileei, zehazki, tresnak ematea, zailtasun handienak dituzten ikasleei, alde batetik, eta adimen gaitasun handiak dituzten ikasleei, bestetik, laguntzeko.
- Testuinguru kaltetuetan bizitzeagatik gizarte bazterkeriaren arriskuan egon daitezkeen ikasleek bikaintasuna lor dezaten ikastetxean egiten diren praktika didaktikoetan laguntzea
- Jardunbide egokien esperientziak trukatzeko espazio bat zabaltzea.

- Jasangarritasun esperientzien trukaketarako espazioa irekitzea.

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko ikastetxeetan dauden ikasleen % 90ak Ebaluazio Diagnostikoko hasierako mailatik gorako emaitza lortzen du urte horretan neurtzen den kompetentzian.

2. ESTRATEGIA. Ikastetxeak ikasten duten hezkuntza-komunitateak eraikitzeke ardatza direla lortzea.

Helburua:

- Ikastetxeei lagundu bertako hezkuntza-komunitateko testuinguruaren ezaugarriei eta premiei lotutako prestakuntza eta berrikuntza proiektuak garatzen (2.1.1. Hezkuntza Berrikuntzako Proiektu Integralak eta 2.1.1. Berrikuntzarako prestakuntza proiektuak).

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko ikastetxeen %25ak Hezkuntza Berrikuntzako Proiektu Integralak garatzen ditu.
- EAEko ikastetxeen %75ak Berrikuntzarako prestakuntza proiektuak garatzen ditu.

Helburua:

- Eredugarriak eta bikaintasunaren adierazgarriak izan daitezkeen ikastetxeetako praktika onen gaineko esperientziak EAEko gainontzeko ikastetxeekin partekatzea eta ikastetxe hartzailetan tutorizazio prozesuak burutzea.

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko ikastetxeen % 20a bikaintasunaren adierazgarri diren praktika onak gainontzeko ikastetxeekin partekatzeko prest aurkezten da eta eskatutako ikastetxeak bere testuingurura egokitutako aholkularitza eta laguntza jasoko du.

Helburua:

- Ikastetxeko testuingurura egokitutako prestakuntza indartzea bai irakasleei zuzendutako prestakuntza eskaintzaren bidez, bai irakasleen prestigioa sustatuz, bertako hezkuntza-komunitatearen garatzen den jarduna hobetzeko.

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko irakasleen %100ak hartu du parte berrikuntzarako prestakuntza modalitatearen batean.

3. ESTRATEGIA. Hezkuntza-komunitateko eragileen eta Laguntza Zerbitzuetako (Berritzeguneak, Ingurugelak, IRALE,...) kideen arteko sinergiak, lankidetzak eta koordinazioa indartu.

Helburuak:

- Laguntza Zerbitzuen eginkizuna bultzatu ikastetxeentzat argitaratzen diren urteko deialdien gaineko aholkularitza eta laguntza eskaintzan:
 - Deialdietatik kanpo egon arren Saitetik bideratutako berrikuntza ekintzak.
 - Testuinguruko premietatik abiatutako berrikuntzarako prestakuntza eskaerei erantzuteko Sailak eskaintzen duen Laguntza Zerbitzuetako kide adituen laguntza.

Lorpenaren adierazleak [2014-2017]:

- EAEko ikastetxeen % 100ak jasotzen du Laguntza Zerbitzuen aholkularitza eta laguntza.

3.2. Laguntza-zerbitzuen parte-hartzea ikastetxeetako eskola-komunitateen prestakuntza-berrikuntza jardunean

Sei dira, gutxienez, Sailak propio eraturako laguntza-zerbitzuak eta ikastetxeetako eskola-komunitateko kideekin harreman zuzena dutenak: Berritzeguneak, IRALE, Ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako zentroak, Ikusteko urritasuna duten ikasleentzako baliabidetegiak, Ingurugelak eta Euskal Girotze Barnetegiak.

Laguntza zerbitzuok, bakoitzak bere lege-oinarrietan eta betebeharrak zehatzetan bilakaera berezitua izan duten arren, bat datoz EAEko Hezkuntza-sistemak ikasle orori eskaintzen dion irakaskuntzaren kalitatea bermatzen eta horretarako irakasleen eta hezkuntza-komunitateko gainontzeko eragileen prestakuntza-berrikuntzan.

Sei laguntza-zerbitzuon antolamendua, azpiegitura, ezaugarriak eta tamainak ezberdinak dira. Izan ere, Berritzeguneen egitura 18 zonaldeetako Berritzeguneek eta horiek guztiak koordinatzen dituen Berritzegune Nagusiak osatzen dute. IRALE hiru lurraldeetako hiriburuetan kokatzen diren 4 ikastetxek osatzen dute. Ingurugelak, bestalde, Legazpian kokatutakoaz gain, lurralde bakoitzeko bat dago. Ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako 3 zentroak Vitoria-Gasteiz, Urtuella eta Lasarte-Orian kokatuta daude. Hiru dira Ikusteko urritasuna duten ikasleentzako baliabidetegiak eta hiru hiriburuetan kokatuta daude. Azkenik, bost dira Euskal Girotze Barnetegiak, eta honako herri hauetan daude kokatuta: Alkiza, Barria, Elgoibar, Lemoiz eta Segura.

Aipaturako laguntza-zerbitzuon ezaugarriak bitarteko direla, ikastetxeetako ikasgeletan irakasleengan eta eskola-komunitateetako kideengan esku-hartze jarraitua eta zuzena bideratu ahal izateko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak, azken urteotan, sei zerbitzuon arteko etengabeko harremana eta lankidetzak bermatu du.

Metatutako ezagutzak, baliabideek eta Sailaren beraren profesionalen sareek EAEko irakas-sisteman ondorio eta eragin gehien izan dezaten.

Horregatik, ikastetxeetara egunean-egunean hurbiltzeko eta eskola-komunitateekin joan-etorriko hartu-emanak izateko aukera duen Berritzeguneen azpiegituraz baliatuz, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak, Berritzeguneetako zuzendaritza, aholkulari eta bestelako langileen laguntza eskatu du, bakoitzari dagokion zonaldeko ikastetxeetan, prestakuntza-berrikuntza premiak asetzeaz gain, gainontzeko laguntza-zerbitzuetatik bideratzen diren prestakuntza-berrikuntza ekintzen edota esku-hartzeen antolamenduan parte hartzeko. Egia esan, helburua ez da prestakuntza-ekintzen antolamendua soilik, benetako xedea hezkuntza-sistemaren hobetze prozesuan, ikastetxeetan eta eskola-komunitateetan zerbitzu, erakunde eta eragile desberdinek egiten dituzten esku-hartzeen arteko koherentzia eta arestian aipatutako sinergiak bideratzea da. Bestela esanda, irakas-sisteman gabiltzan guztion ardura da ikasleek aukera berdintasunean eta bikaintasunean oinarrituta oinarrizko konpetentziak garatzea eta bizi-proiektuak betetzea. Eta horretarako funtsezkoa da irakas-sisteman lanean jarduten dugun guztion arteko koordinazioa, elkarlana eta koherentzia.

Ikuspegi horretatik, hain zuzen ere, proposatzen da eskualdeetako Berritzeguneak izan daitezela, ikastetxearen berrikuntzarako prestakuntza-planaren eta eskaeren arabera, bere eremuko ikastetxeetan zuzenean prestakuntza-ekintzak edota bestelako esku-hartzeak egiten dituzten laguntza-zerbitzuen eta gainerako eragileen arteko lankidetzak bideratzeko arduradunak.

Izan ere, Berritzeguneak ikastetxeko eragileekin batera lankidetzan aritzen dira eskola-komunitateko indarguneak eta ahulguneak behatzen. Beharrak atzemate prozesuan ere lankidetzan jarduten dute, eta irtenbideak eta jarraitu beharreko jardunbideak elkarrekin bilatzen, adosten eta aurrera eramaten dituzte. Bestela esanda, hobekuntza prozesuan ikastetxearen bidaide bihurtzen dira. Ikastetxeen beharretara egokituko den prestakuntza modalitatea eskaintzeko bideak arakatzen dituzte: ikastaroak, mintegiak, ikastetxean bertan egiteko saioak edota ikerketa partekatua.

Halaber ikastetxeek edo eskola-komunitateek dituzten indarguneak eta ahulguneak detektatzeko irizpideak eta adierazleak beraiekin batera lantzen dituzte eta bitartekoak errazten dituzte ikastetxeen arteko trukea eman dadin, dela jardunaldien bidez, arestian aipatutako mintegien bidez, eskolen eta eragileen arteko zuzeneko erlazioaren bidez, edo dela ikaslearengan edo familiarengan edota gelan bertan esku-hartze zuzenaren bidez.

3.2.1. Berritzeguneen egitekoa zentroen prestakuntza-planetan

Zentroko urteko plana osatzen duten hobekuntza-helburuak arrakastaz betetzeko, beharrezkoa da prestakuntza-plan bat txertatzea, eta azken horrek zehaztutako helburuak lortzeko behar diren prestakuntza-ekintzak biltzea, besteak beste:

- Berritzeguneetako prestakuntza-programako jarduerak (Ikastaroak, mintegiak, lan-taldeak eta abar). Jarduera horiek zentroetako hobekuntza-planen arabera hezkuntza-beharren analisia eginda (ikastetxearen

Hobekuntza planen arabera diseinatu eta eskainiko dira, Sailak bultzatzen dituen unean uneko lehentasunezko lan ildoak eta programak aintzat hartuz.

- Zentroak Hezkuntza Sailaren deialdietan eskatutako jarduerak.
- Zentroak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatutako esperientzia, programa eta berrikuntzetan parte hartzetik eratorritako prestakuntza-ekintzak.
- Beste prestakuntza jarduera batzuk.

Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuek zentroak aholkatuko dituzte, dela prestakuntza-proiektuen diseinuan, dela antolakuntzan, dela horien garapenean. Honako zeregin hauek dituzte, bada:

- Laguntza eta aholkularitza ematea zentroko ebaluazio-prozesuen analisia egiteko; eta hori guztia, gero, hobekuntza-planetan islatzeko.
- Laguntza eta aholkularitza zentroaren txostena, zentroko ebaluazio-prozesuetatik eratorritakoa, egiteko.
- laguntza eta aholkularitza urteko Planean sartu beharreko hobekuntza-plana osatzeko
- Inguruko zentroen hobekuntza-planen analisi globala, beren jarduera-plana egiteko.
- Prestakuntza-plana egiteko (hobekuntza-planarekin bat datorrela ikusiz) eta Berritzegunearen esku-hartzea doitzeko («kontratua» hasierako aktan) laguntza eta aholkularitza.
- Zentroen berrikuntzarako prestakuntza-eskaerak baloratzea, hobekuntza-planarekin bat datozela ikusiz.
- Aholkularitza- eta prestakuntza-saioak, ikasturtean zehar aurrez planifikatutako esku-hartze esanguratsuen bidez (eta hobekuntza planean adierazitako eta argi eta garbi azaldutako gaietan).
- Praktika onak sustatzea eta zabaltzea eta ikastetxe sareak sortzea.

Esparru horiei modu egokian ekiteko, ezinbestekoa da Berritzeguneen arteko koordinazioa eta Berritzegune Nagusiaren gidaritza; baliabideak, irizpideak, tresnak etab. bateratuz eta zonaldeetako Berritzeguneetara bideratuz.

3.2.2. Ingurugelen egitekoa ikastetxeetako ingurumen prestakuntza planetan

Ikastetxearen urteko planaren hobekuntza helburuak bete-betean lortzeko, ingurumen hezkuntzak eskaintzen dituen aukerak eta ikuspegiak plan horretan esplizituki barneratuz, Ingurugelek honako jarduera hauek burutuko dituzte:

- Ingurugeletako prestakuntza planaren jarduerak. Ikastaroak, mintegiak, lan taldeak, e.a., diseinatuak eta eskainiak Eskola Agenda 21 programarekiko eskualdeko heziketa beharrak aztertuta. Jarduera horiek ikastetxeek adostutako hobekuntza-planekin bat egingo dute, eta, edonola ere,

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lehenetsiko dituen lehentasunezko lan ildoak eta programak aintzat hartuko dituzte.

- Ikastetxeek eskatutako prestakuntza-jarduerak.
- Prestakuntza ekintzak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailek bultzatutako esperientzia, programa eta berrikuntzetan ikastetxeak parte hartzeagatik eratorriak
- Prest_Gara programaren jarduerak.

Ingurugelek, hezkuntzarako laguntza-zerbitzu diren neurrian, ikastetxeei aholkularitza eskainiko diete, hala Eskolako Agenda 21 proiektuaren diseinu eta antolaketan, nola haren garapenean. Horretarako, eginkizun hauek dituzte:

- Eskolako Agenda 21en garapenerako eta ikastetxeko jasangarritasun plana lantzeko laguntza eta aholkularitza eman.
- Ikastetxeetan ikasturtean zehar aurrez planifikatutako esku-hartzeak (hobekuntza planean adierazitako eta erlazionatutako gaietan).
- Jasangarritasunaren eremuko praktika onak trukatu eta sustatzeko sare eta lan taldeak mantentzea eta sortzea.

4. Prestakuntzaren prozesua eta emaitza baloratzea

Irakaskuntzan dihardutenen prestakuntza- eta berrikuntzarako ahalegina hezkuntza-zentroetan berrikuntza garatzeko ikuspegitik begiratu eta baloratu behar da. Balorazio horrek, bada, honako alderdi hauek hartu behar ditu aintzat:

- Prestakuntza- eta berrikuntza-prozesuek ikastetxeko ohiko dinamikari eragin behar diote.
- Prozesu hauek ikasgeletako praktikari eragin behar diote.
- Zentroak prest egon behar du erakunde mailako berrikuntza sistematikoa eta taldekoa sustatzeko.
- Hezkuntza-elkartearen parte hartzeak berrikuntza-prozesuetan zentroan finkatzea eta hedatzea ekarri behar du.

Baldintza horiek guztiak zentroan txertatutako prozesu konplexuekin lotuta daude; izan ere, dakigunez, berrikuntza prozesu neketsua da, eta ez dago soilik borondate indibidualen edo egitura-aldaketen mende. Ez da noizbehinkako prozesu bat ere; aitzitik, prozesu luze baten emaitza da, eta prozesu horretako eragileak zentroari bere burua berritzeko aukera ematen dioten dinamiketan sartzen joaten dira, eta, dinamika horiek instituzionalizatzea lortzen dutenean, zentroko antolamendu-kulturaren parte bilakatzen dira, modu jasangarrian.

Begien bistakoa denez, bada, zentro batek sartutako berrikuntzak bere kulturaren parte izatea lortu arte egin behar duen bidea luzea eta konplexua da. Bide horretan, zentroaren dokumentu ofizialek, burokratikoak badira ere eta arau-izaera badute ere, eskola-erakundearen jardunbide berritzaileak adosteko eta sistematizatzeko funtzio garrantzitsua bete dezakete. Horietan gauzatzen dira lortu beharreko helburuak, jarraitu beharreko ekintzak eta zentroaren eta hezkuntza-jardunaren funtzionamendua arautuko duten irizpideak, betiere eskola-eremuan esku-hartzen duten eragile guztiek partekatzen duten prozesu baten barruan.

Unibertsitateekin partekatzen ditugun esku-hartzeen eta egitekoen artean ikerketak garrantzia behar luke. Baliabide hori probestu beharko genuke, elkarlanean ikerketa hainbat abian jartzeko. Mikroikerketak, lekuan lekukoak eta gai ezberdinez. Prestakuntza/ berrikuntzak duen eragina neurtzeko, behatzeko, tresnak, irizpideak eta adierazleak zehazten lagunduko ligukeena irakasle guztioi.

Eragin hori neurtzeko bi lan-lerro jorratu beharko lirateke. Batetik, kanpo neurketa. ISEI-IVEI, Unibertsitateek eta antzeko erakundeek bidera ditzaketen ebaluazioak, hedadura handikoak eta baliabide ugariz hornituak. Horrelako neurketek ez dute eragin handirik eskolako eragileengan. Informazio jasotzen da, baina hor ez dago praxiaren analisirik, kasurik gehienetan. Horrek ez gaitu trebatzen ebaluazio irizpideetan, adierazleen zehazte lanean etab.

Aldiz, ikastetxean bertan, ebaluazioa edo eraginaren neurketak egin behar baditugu, ezinbestekoa da praktikaren analisia, bai eta irizpideak eta adierazlek zehaztea. Dinamika horrek prestakuntza aldetik eragin handiagoa izaten du.

5. Ondorioak

Prestakuntza-plan honetako proposamena hezkuntza eragile gehienei zabaldu zaie, eurekin eztabaidatu eta guztien ekarpenak jasota honako adostasun-konklusio bateratu hauetara heldu gara:

- Hezkuntza-komunitateko partaide, laguntza-zerbitzu, gainontzeko zerbitzu eta, oro har, eskola-elkartean esku-hartzen dugun kide guztion arteko koordinazioa, lankidetzeta eta sinergiak bilatzea hobesten da, ikaslea helburu eta xede duen heziketa ahalik eta integralena izan dadin.
- Ikusmolde teorikotik, prestakuntza plan honen edukia premiazkoa, interesgarria eta asmo handikoa da. Edonola ere, ikastetxeetan gauzatu behar da irakasle eta familien arteko prestakuntza kolaboratiboari lehentasuna emanez, xedea ikasleentzat onuragarri izan dadin eta, era berean, lagungarri bai familientzat, bai langileentzat.
- Ikastetxea edo, hobe esanda, eskola-elkartea da prestakuntza ororen ardatza.
- Ekitateari dagokionez, lortu dugun mailari eutsiz, bikaintasunerantz eman behar ditugu urratsak. Funtsezkoa baita zailtasun, premia eta konplexutasun gehien dituzten eskola-elkarteei modu eraginkorrenetan erantzutea. Arrisku egoeran egon daitezkeen eskola-elkartek antzeman eta zuzeneko arreta berezia eskaini behar zaie eragile eta baliabide guzti-guztiekin.
- Prest_Gara txosten honetan etengabeko prestakuntzari buruz gogoeta egin bada ere, ezinbestekoa ikusten da irakasleen hasierako prestakuntza ere sakonki aztertzea eta hasierako eta etengabeko prestakuntzaren arteko trantsizioa garatzeko ereduak eta bideak aurkitzea.
- Indar berezia emango zaio irakasleen prestakuntzaren eta gainontzeko hezkuntza egitasmoen arteko loturak aurkitu eta definitzeari, hezkuntza-elkarteko kideek elkarrekin ahalik eta marko bateratuenean jardun ahal izateko.